

Nafarroako konkistaren 500 urteurrenaren harira, Tomas Urzainqui historialariak gertakari hartan murgildu nahi izan du, zehaztasun historikoaz, egira hurbiltzeko.

Ezagutzarik gabe ez dago erabakirik. Tomas Urzainqui historialariaren iritziz, duela 500 urte konkistatua izan zen Nafarroaren deskonkistaren unea iritsi da, herritarrek euren etorkizuna askatasunez aukeratu ahal izatekoarena. Horretarako, alta, gertakari historikoen azalpen argiak behar dira, iruzurren estalkietatik libre. Euskaldunen historiaren mugari bilakatuko zen gertakari hura ulertzeko gakoak eskuratu dizkigu historialariak.

500 urteurrena dela eta, Nafarroako konkista denen ahotan dago egun. Eman diezaigun, baina, nolabaiteko testuinguru bat, gertakari hori hobeto ulertzeko.

1512 ez da gertakari isolatu bat, konkista prozesu baten baitan kokatzen den heinean. Etengabeko konkista, deituko nioke nik. Konkista garrantzitsu horien artean itsasaldeko Nafarroa osoarena aurkitzen da, egun Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeek osatzen dutena, Iruñea edo Tafallan bezalako biztanleri nafarrarekin. Prozesu hau hasi aurretik prestaketa ideologiko bat dago: iruzur erraldoi batzuk inposatzen dira, gerora gertatuko ziren konkista guztiak ahalbidetzeko. Iruzur hauetan zerikusi zuzena izan zuen erlijioak, Aulki Santuak, izan ere, konspirazio teokratiko bat izan zen. Kristautasuna Erromako erlijio ofizialean bilakatu zenean, botere erlijiosoaren eta estatu boterearen arteko sinbiosia eman zen, gaur egun arte arrastoa utzi duena. Testuinguru hau kontutan hartzea garrantzitsua da konkista ulertzeko. Zenbaitzuk botere erlijiosoa inoiz existitu ez zen batasun amets batekin nahastu zuten, penintsularen batasunarekin. Bestalde, Hispania izenaren monopolioaren nahastea zegoen: afera lotsagarria da, Gaztelak monopolizatutako Espainiaren ideia hori... Batasunaren istorio hau bisigodoen garaitik zetorren, orduan, errealtate bat baino gehiago, amets hutsa izan zen arren. Izan ere, bisigodoek ez zuten penintsula guztia kontrolatzea lortu, Baskoniako lurraldea kasu. Erdi Aroko eta ondorengo lehen mendeetan zehar, XV. eta XVI. mendeetan zehar, Gaztela-Espainiaren proiektu politikoaren justifikazioaren muina jorratu zen, zeinen bitartez hegemonia eskubidearen jabe sentitzen ziren. Monarkia hispaniko, katoliko eta unibertsala nahi zuten, hau da, proiektu penintsular hutsean gelditzetik urrun, unibertsala izateko zantzua zuena. Proiektu hau Fernando Katolikoak jarri zuen martxan, eta Karlos I eta Alemaniako V.ak eta Felipe II.ak garatu zuten. Hiruak batera eraman zuten aurrera.

Oinarririk gabeko errealtate bat sortzea bezala...

Bai, eta basakeria asko egin dira fantasia horren izenean. Fantasia horrek hegemonia grinarekin bat egin zuen, zantzu militarista eta kolonizatzailea zuen gizarte batekin, konkistatuen baliabide guztiak ustiatzea helburu zuenarekin. Horixe egin zuten musulman espainolekin, haiek ere espainolak baitziren: ebatsi, euren etxeetatik bota eta ondasunak kendu. Gizarte suntsitzaile bat zen. Ondoren, Ameriketara abiatu ziren eta berdin jokatu zuten, baita Afrika iparraldean ere. Eta Nafarroari ere berea iritsi zitzaion. Prestaketa hori justifikazioan bilakatzen zen gerora. Egindakoa egin zela esaten zen, Nafarroa ezomen zelako benetako zerbait, ez zegoelako justifikatuta, eta euren boterea zela oinarrian justifikazioa zeukan gauza bakarra. Izugarritzko ahultasuna erakusten zuten jokabide honekin, pentsamenduaren eraikuntza bat zelako, ez zelako errealia.

Eta nolatan da posible oinarri errealik ez duen justifikazio batek errealtateak berak baino indar gehiago izatea? Indarkeria basatiaren eskutik joan zelako. Eurek indar gehiago zeukaten. Gainera, Aulki Santuaren eta Erreformaren interesekin bateratu zen gaztelarren proiektua. XV. mendebukaeran eta XVI. mende hasieran, Elizak izugarritzko arazoa zeukan esku artean. Eliza negozio ustela zen eta, horren erantzun bezala, Erreforma sortu zen: Rotterdameko Erasmo lehenik; Lutero ondoren, bere 95 proposamenekin; eta Calvino azkenik. Eliza, beraz, laguntza militarren beharrean zegoen eta Gaztelak "eskuzabal" eskaini zion laguntza hori. Gaztelak protestanteekin akabatzea erabaki zuen. Penintsulan, izan ere, suntsitu zituzten. 1512ko konkistaren aurretik ere, Fernandok Erasmoren alde zeudenak eta botere absolutu eta tiraniko horren aurka zeudenak erreprimitzen hasi zen. Ezabatu zituen. Lehenengo konkista, beraz, sekretua izan zen, 1505ean bere emaztea hil ondotik hasi

zena: 1505 eta 1512 artean, Gaztelan izugarrizko garbiketa eraman zuen aurrera. Horrexegatik, Nafarroaren konkistaren aurka agertu ahal izan ziren guztiak ezabatu egin zituen aurretik. Interes desberdinak bateratzen dira une berean: alde batetik, Gaztelako oligarkia noble eta militarren interes hegemonikoa, oinarritzkoa; eta bestetik, Aulki Santuaren interesa, elizako oligarkiarena. Hortik sortzen da Nafarroako Unibertsitateekin akabatzen duen indarra. Konkista militarren ondoren Kontrarreformaren garaia hasi zen, biztanleria desorientatu zuena, herritarren garunak jaten zituen. Besteak beste, Nafarroako Elizaren ordezkariak eman zen. Orduko erreinu subirano guztiek, normala zen bezala, berezko Eliza bat zeukaten. 1512a arte, Nafarroako erregeek oso erlazio ona izan zuten bere elizarekin, bata besteari laguntzen ziren eta Erroman ordezkariak ofiziala zeukaten. Baina konkistaren ondoren guzti hori eten egiten da eta, Nafarroako errege-erreginek euren ordezkariak Erromara bidaltzen jarraitu nahi bazuten ere, gaztelarrek ordezkari hauek ez onartzea eskatu zion Erromari. Hala ere, Nafarroako erregeek Nafarroa Europako erreinu bezala onartua izatea lortu zuten, Nafarroa Beherean berreraiki zuten erresumatik. Egia esan, Nafarroako konkista ez zen 1512ean bukatu, Iruñeko errege-erreginak nahiz gobernu buruak iparraldera jo baitzuten, bertan euren erreinuari jarraitasuna emateko. Gainera, gobernuak modernoak ezarri zituzten bertan.

Konkista ukatzen dutenek diotenez Nafarroako erakunde asko modernizatu omen ziren Gaztelarekin elkartzekoan...

Hori ez zen horrela izan. Hasteko, erakundeek modernizazioa konkistaren aurretik hasi zen. Estatuaren goi mailatan modernizazio hori jada eginda zegoen. Gertatzen dena zera da, konkistaren mehatxuarekin, erreforma hori azkartu egiten dela. Jarraitasun batematen da, ez da ondorio bat. Gai hau oso garrantzitsua da. Ez balitz konkistarik gertatu, Nafarroako estatu modernoak askoz azkarrago garatuko litzateke. Fernando erregearen Nafarroa konkista. tze mehatxuak modernizazioa akuilatu zuen, lurraldea indartzeko. Fernandok, hala, bere proiektuari bultzada bat eman zion, Nafarroak ihes egingo ziola ikusi zuenean. Zehazkiago, 1512ean erasotzea erabakitzen du, berandutuz gero ez zuela lortuko pentsatu zuelako. Gehiago atzeratuz gero, lehenengo estatu modernoarekin topatu izango zen. Izan ere, herritarren arteko elkartasuna ematen denean, aber-tzaletasunaren sentimendua barneratzen denean, kolektiboak asko indartzen dira. Nafarroa barneratze prozesu horretan aurkitzen zen. Gerora erakutsi zuten nafarrek euren indarra, iparraldeko Nafarroak Frantziarekin edukitako gerran, non frantziarrak gailendu zituzten. Esan nahi dudana zera da, nafarrek gaztelarrak garaitzeko aukerak izango lituzketela. Baina Fernandok Iruñean espioiak zituen, gertatzen ari zenaz ohartarazi zutena. Hala, Nafarroako Gorteek uztailaren 17rako Mobilizazio Orokorreko deialdia egin zutela jakin zuen, konkista baino bizpahiru egun lehenago. Nafarroan ejertzito eraginkorra sortzea erabaki zen, ongi armatua, gero eta hurbilago ikusten zuten inbasioari aurre egin ahal izateko. Izan ere, Gaztelako ejertzitoa arabar lautadan zeukaten; ejertzito ingelesa, zerikusirik ez zeukana, Gipuzkoan; ejertzito frantziarra Lapurdin... Horrek ez zuen itxura onik. Nafarroako enbaxadore espainola Ontañon delako bat zen, euskalduna ziurrenik, Burgos iparraldekoa zelako. Iruñean mundu guztiak solas egiten zuen euskaraz, beraz, Ontañonek informazio guztia pasatzen zion errege gaztelarrari. Fernando Logroñon geratu zen bere biktimaren zain, hurbildu ahala atzaparkada emateko prest... Mobilizazio Orokorren informazioa jaso bezain laster erasotzeko agindu aeman zuen, Nafarroako ejertzitoari biltzeko betarik eman gabe. Denbora izanez gero, ejertzito nafarrak Iruñea indartuko zuen eta ziurrenik gaztelarrek ezin izango luketen hiria hartu, hiri baten barruan lauzpabost mila gizon edukiz gero hori oso zaila baita. Ongi erabiltzen jakin zuten interes asko daude hortik.

Orduan, zer gertatzen da Nafarroako erakundeekin konkistaren ondoren?

Nafarroak berezko hezkuntza sistema bat zeukan: bertako ikasleak Europako unibertsitateetara joan ohi ziren, Montpellierrera, Lyonera, Toulouserara, Bolognara... Baina guzti hori bertan behera utzi eta Nafarroako ikasleak Espainiako unibertsitateetara joatera behartzen dituzte. Jesuitak iristen dira, Espainiako erregearen eta hark izendatutako apezpikuaren laguntzarekin. Iruñean ez zituzten nahi, baina babes politikoa zuten, azkenean onartu behar izan zituzten. Eta ez hori bakarrik, izan ere, beranduago Jesuitek hezkuntzaren monopolioa lortuko zuten: Gramatikaren Ikastetxe Publikoa, Latinena deiturikoa, abilki itxi zuten, bertatik joaten baitziren nafar ikasleak europar unibertsitateetara. Jesuiten konpainia ezar-tzen da, Kontrarreformaren ideologia zabaldu

eta finkatzeko, monarkia katoliko eta unibertsala defendatzeko. Euren esana hauxe zen: Jainko bakar bat eta errege bakar bat. Kasualitatez, erregea espainola izan behar... Jesuitak, Aulki Santuak eta Monarkia Hispaniarraren arteko aliantzak zeukan Kontrarreformaren ideia defendatzeko ezpata nagusia ziren. Era basatian egin zioten aurre Erreformari, bai fisikoki bai psikologikoki ere.

Zein zen euskararen egoera konkista gertatu aurretik?

Nafarroako erregeak euskaldunak ziren. Kontutan hartu errege guztiek, Iruñeko lehenengo erregetik hasita; baita IX. mendeko duke baskoiek ere, izen euskaldunak zituztela: Santxo, Xemen, Gartzea, Eneko... Mendeak igaro ziren monarkia euskaldunekin, zentzugabea litzateke izen horiekin euskararik ez zekitela pentsatzea. Gainera, horrela izan ezean, ezingo litzateke erresumako jendearekin komunikatu, ez eta nobleekin, ez eta euskara soilik zekien herritarrekin ere. XVI. mendean, Zangotzako Enrike II.ak, Juan eta Catalinaren semeak, Nafarroako erakundeak berreraiki zituen iparraldean, eta auzitegiko magistratuak euskaldunak izateko obligazioa ezarri zuen, justu Nafarroa Garaian gertatzen ari zenaren kontra. Azpimarratzekoa da, gainera, sutetik salbatu diren garai hartako bi liburuhandiak, Leizarragaren Testamentu Berria eta Etxepareren Linguae vasconum primitiae; Nafarroako erregeen laguntzarekin egin zirela. Nafarroa independentearen jarraitasun politikoa izan zen euskararen garapenari bultzada eman ziona eta europar Erreformaren bitartez euskal kultura babestu nahiz zuena: hori kontutan hartu beharra daukagu.

Nafarroako erresumaren banaketaren ondorioz, bestalde, Euskal Herria sortzen da...

Euskal Herria euskal hiztunen hizkuntza komunitate bezala sortzen da. Baina Nafarroako ibilbide historikoa da nazioartean onartua den euskaldunen nazioa eraiki. tzean oinarritu dena. Ez ditzagun gauzak nahasi: Euskal Herria, alde batetik; eta Nafarroa den euskaldunen nazioa, bestetik, bata bestearen osagarri dira. Izan ere, Euskal Herria izena 1620an finkatzen diren konkisten ondorengo testuetan hasten da erabiltzen. Gaur egungo konkistatzaileak pozik egongo dira Nafarroa Zazpiak Baten probintzietako bat gehiago besterik ez dela dioten kolaboratzaileak dituztela ikustean. Euskaldunen subjektu politikoa Nafarroa dela onartu nahi ez duenik badago. Horrek ez du esan nahi, inondik inora, euskaldunaren eta nafarraren artean lehiarik dagoenik, alderantziz, errealtate komun baten bi aurpegiak dira. Hizkuntzaren garapena gizarte politikoaren garapenaren eskutik joan ohi da. Ezin dezakegu perspektiba historikoa galdu. Soilik hizkuntzan oinarritzen diren nazionalismoek ez dute emaitza onik lortzen, Europan kasu askotan gertatu den bezalaxe. Funtsean politikoa izan behar duen deskonkistaren bidea hartu ezean, soilik hizkuntzan oinarritzen ez den abertzaletasun politiko eta sozialarena, ez da ezer lortuko. Are gehiago gure herrialdearen kasuan, non euskara hain gutxitua dagoen. Politika gizartearen eskubideetan oinarritzen da eta eskubide horien artean aurkitzen da hizkuntzarena ere, baina besteak haina garrantzia dauka, ez gehiago. Horrexegatik, gure historiaren ezagutza askatasunen berreskurapenarekin lotuta dago. Ez da jolas bat, oinarritzko zerbait da.

Herritarrek euren historia jakiteko nolabaiteko ardura daukatela errango zenuke?

Jendeak ezagutu, jakin nahi du, horrexegatik jartzen dituzte hainbeste traba eta oztopo, historia ezagutua ez izateko. Matxuratutako merkantzia asko sartzen da, iruzur asko, gizartea bere menpekotasunaz, bere izatearen ukapen egoeraz ohartu ez dadin. Baina historian herriaren eskubideen gakoak biltzen dira, horrexegatik da hain garrantzitsua ezagutza. Askatasunaren eta independentziaren berreskurapenaren bidean, hau da, deskonkistaren bidean, herritarrek euren historia ezagu. tzea oinarritzkoa da. Konkista, beraz, ez da oraindik bukatu... Konkistatuak izaten jarraitzen dugu, eta deskonkistaren prozesuari hasieraematea beharrezkoa da. Gaur egungo dominatzaileek konkista bat egon zela onartzen dute, baina ez dute ezer jakin nahi gaur egun konkistak aurrera jarraitzen duelako ideien inguruan. Duela 500 urteko gertakari bat bezala utzi nahi dute baina, zer edo zer konkistatzen bada, deskonkistarik izan ezean, konkistatua jarraitzen du. Konkista etengabeko lapurreta da, gauza eta pertsonen gain biolentziaz lortzen dena: espoliazioa, erailketa, exekuzio, genozidio eta magnizidioak barne. Guzti hau deskonkistarekin soilik bukatu daiteke, hau da, konkistatzaileen erretretarekin eta soberania eta independentziaren berreskurapenarekin.

Nola hasi daiteke prozesu hori?

Bi hitz dira gakoa: ezagutza, herritarrak euren egoeraz kontziente izatea; eta erabakia. Baina lehenengo urratsa ezagutza da, ezagutzarik gabe ez baitago erabakirik. Bata bestearen ondorioa da. Hezitzaileek, ikastetxe eta hezkuntza zentroek, ardura garrantzitsu bat daukate: egia esan behar dute, itzulingururik gabe. Ezin dute konkistaren sakontze eta mantentze lanetan lagundu, aurkakoa egin behar dute. Hezitzaile bezala daukaten lana egia erakustea, herritarrei euren kabuz pentsatzen irakastea da, argumentuekin, gertakarien ezagutza zehatzarekin, erabakia hartu dezaten. Erabakia konkistatuak izaten jarraitzea izan daiteke, nahiz eta oso zaila izan, baina benetan gertatzen ari dena ezagutuz hartutako erabaki askea izango litzateke edonola ere. Desinformazio lan bat dago guzti honen atzetik, estaltze eta ukaltze lan handi bat.

Jendea ezagutza horren beharraz gero eta kontzienteago dela errango zenuke?

Geldiezina da. Jakin nahi izatea giza baldintza oinarrizkoa da, gazteriaren asaldaduraren parte da. Horrexegatik, dominatzaileak belaunaldi bakoitza konkistatzeko beharrea aurkitzen dira, izugarrizko lana da. Gertatu behar dena zera da, belaunaldi bakoitza konkistatzeari uztea, aski da. Belaunaldi berriek egia ezagutu behar dute erabaki bat hartu ahal izateko: horixe da gazteriaren erronka nagusia. Ez diezaietela burua berotu. Gainerako guztia galbideak dira. Desorientazio handi bat sortu da. Gainera, orain euskaltzale jende askok Zazpiak Bat folklorikoa nagusitzen du eta gure herrialdearen ezagutza historikoari beldurra diotela dirudi. Baina guztia dirudiena baino sinpleagoa da. Azpimarratu nahi dutena da konkista ez dela gertakari isolatu bat, jarraitasun bat dauka, gaur egun arte iristen diren gertakarien bitartez.